

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Behin betiko onestea 2020ko aurrekontu orokorra

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez inolako erreklamaziorik aurkeztu 2020ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da; hona laburpena, kapituluka:

DIRU SARRERAK	ZENBATEKOA
ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Zuzeneko zergak	261.792,40 euro
2. Zeharkako zergak	5.000,00 euro
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	97.724,62 euro
4. Transferentzia arruntak	192.618,34 euro
5. Ondare bidezko diru sarrerak	10.400,00 euro
KAPITAL ERAGIKETAK	
6. Kapital transferentziak	0,00 euro
DIRU SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA	567.535,36 euro

GASTUAK	ZENBATEKOA
ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Langile gastuak	137.939,98 euro
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	245.770,00 euro
3. Finantza gastuak	500,00 euro
4. Transferentzia arruntak	110.453,42 euro
5. Kreditu orokorra eta aurreikusitako gabeko beste batzuk	372,26 euro
KAPITAL ERAGIKETAK	
6. Inbertsio errealak	33.900,00 euro
7. Kapital transferentziak	38.600,00 euro
GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA	567.535,36 euro

Aldi berean, eta bat etorri apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin, osorik argitaratzen da udal honek onartutako langileen plantilla eta lanpostu zerrenda:

I. ERANSKINA

PLANTILLA

1. Karrerako funtzionarioak.

1.1. Gaikuntza nazionalekoak.

Eskala: idazkari-kontuhartzaitza; lanpostu kopurua: 1 (Berantevilla – Armiñón udal elkarte).

Taldea: A1

Titulazioa: Estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hizkuntza eskakizuna: 4. HE, derrigortasun datarik gabe.

Lanaldia: ehuneko 80 Berantevillako Udalean eta ehuneko 20 Armiñongo Udalean.

Destino osagarriaren maila: 26

Betetzeko era: lehiaketa; berariazko osagarria: 21.320,08

II. ERANSKINA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, osorik argitaratzen da arduraldi eskusiboa eta partziala duten karguen ordainsariei eta udal korporazioko kideen kalte ordainei eta haiek bilkuretara joateagatik ematen zaizkien ordainsariei buruzko erabakia:

1. Osoko bilkuretara eta formalki deitutako beste bilera batzuetara benetan joateagatik jasoko dituzte zenbatekoak: 120,00 euro bilkurako.

2. Parte hartzen duten informazio batzordeen bileretara benetan joateagatik jasoko dituzten zenbatekoak: 90,00 euro bilkurako.

3. Alkatearen arduraldi araubidea: arduraldi partziala, ehuneko 50ekoa, eta urteko ordain-saria 23.406,92 euro gordin.

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Berantevilla, 2020ko urtarrilaren 28a

Alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY